



ESKOLA-KIROLA

25 URTE

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN
GIPUZKOA



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

1. KIROLA GUZTIONTZAT: 25 URTE

Duela 25 urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak honako helburu hau planteatu zuen: eskola-adineko haur guztiek kirola egiteko aukera izan zezaten lortzea:

- Kirol-maila edozein izanik ere
- Gaitasuna edozein izanik ere
- Maila sozioekonomikoa edozein izanik ere
- Bizilekua edo eskolatzeko lekua edozein izanik ere

Helburu hori lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak udal, federazio, ikastetxe eta klubekin dihardu lankidetzan, eta diru kopuru handia bideratzen du urtean. Dibertsitate funtzionala duten haurtzako ekintza espezifikoak planifikatzen dira, beste haur batzuekin zein espezifiki.





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

2. KIROL GUZTIAK GUZTIONTZAT

Eskola-kirolaren printzipioetako bat kirol ugari egiten hastea da, txikitatik dauden modalitateak ezagut ditzaten eta, ondoren, beren gustu eta ahalmenetara hobekien egokitzen dena aukera dezaten. Horretarako:

- Lehiaketa-egutegiekin benjaminen eta kimuen kategorietan banakako eta taldeko kirolak aldi berean egiteko aukera ematen dute.
- Hurrei inguruan egiten diren talde-kiroletako diziplina ugari hasteko aukera eskaintzen zaie.
- Kirol guztietan talde mistoek parte hartzeko aukera sustatzen da.
- Hastapen-ikastaroei esker, lehiaketa-egutegietan agertzen ez diren kirolak egin daitezke: herri-kirolak, uretako kirolak (UDA kanpaina), mendiko kirolak, boleibola, badminton, arku-tiroa, golfa eta abar.





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

3. KIROLA, BALIO-ESKOLA

Kirola hauren prestakuntza integralaren osagaietako bat eta balio-eskola garrantzitsua da:

- Kirol kolektiboen bidez (futbola, saskibaloia, eskubaloia eta abar), aurkaria errespetatzen, talde-lanak duen balioaz jabetzen eta abar ikasten dute.
- Banakako kiroletan, norbera hobetzeko grina eta ahalegin pertsonalaren beharra garatzen dute eta beren emaitzak eta kideenak balioesten ikasten dute.

Funtsezkoa da kirol-hastapenak ikastetxeetan egitea, kirolaren hezkuntza-izaera bermatzeko. Hainbat udal eta klubek bat egin dute zeregin horrekin, eta babestu egin dute.





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

4. ESPEZIALIZAZIOA BERE GARAIAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak haurrak babesten ditu kirol-errendimenduan goizegi presionatu ez ditzaten, eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearen eta beste erakunde batzuen gomendioei jarraitzen die, honako hauek saihesteko:

- Osasunaren gaineko ondorio kaltegarriak.
- Gaitasunik txikiak dituztenen bazterkeria.
- Goiz egindako fitxaketen ondoriozko deslokalizazioa.

Ez dago oinarri zientifikorik lehenago espezializatzeari esker talentu gehiago sortzen direla esateko, eta Gipuzkoako emaitzek berretsi egin dute hori.





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

5. KLUBEKIKO LANKIDETZA

Eskola-kiroleko programaren arabera, hurrek aukera izan behar dute beren kirol-jarduera klubetako kirol-eskoletan osatzeko (futbolean, areto-futbolean, saskibaloian, eskubaloian eta errugbian).

- Eskola-kirolaren jarduera osagarri bat da.
- Aukeratutako kirolari lotutako trebetasunak sendotzen dira.
- Ikastetxeko kirol anitzeko jarduera da nagusia.

Akordio horri esker, espezializazio handiagoa eta eskola-kirolaren helburu eta balioak bateragarriak izan daitezke.



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Hitzarmenak:

- 52 kirol-diziplina biltzen dituzten 38 federazioekin.
- 65 udalekin.
- Hitzarmenak Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiekin, udalen bitartez.

Bilakaera: jarduera guztietako parte-hartzaileak %30 izan ziren 1990. urtean, eta %80 gaur egun.

Genero-hesiaren txikiagotzea. Mutilak %80 eta neskak %20 lehen, eta %58 eta %42 gaur egun.

Kirol-modalitateen arteko oreka. Jaiotza-tasak behera egin badu ere, ohiko modalitate guztiek badiraute, eta beste kirol batzuk hasi dira lantzen eskola-kiroleko programaren bidez, hala nola surfa, sofbola eta esgrima.



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Ohiko modalitateetan izandako parte-hartzea:

GIPUZKOA 2015/2016					
KIROLA	Maila	Lizentziak	Matrikulak	%	Sexua
ARETO-FUTBOLA	Benjaminak	1.724	7.080	24,35	Neskak
	Benjaminak	2.252	7.436	30,28	Mutilak
	Kimuak	806	6.905	11,67	Neskak
	Kimuak	1.046	7.220	14,48	Mutilak
ESKUBALOIA	Benjaminak	2.267	7.080	32,01	Neskak
	Benjaminak	4.087	7.436	54,96	Mutilak
	Kimuak	1.930	6.905	27,95	Neskak
	Kimuak	3.193	7.220	44,22	Mutilak





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Ohiko modalitateetan izandako parte-hartzea:

GIPUZKOA 2015/2016					
KIROLA	Maila	Lizentziak	Matrikulak	%	Sexua
SASKIBALOAIA	Benjaminak	2.785	7.080	39,33	Neskak
	Benjaminak	4.872	7.436	65,51	Mutilak
	Kimuak	2.623	6.905	37,98	Neskak
	Kimuak	3.966	7.220	54,93	Mutilak
FUTBOLA	Benjaminak	3.020	7.080	42,65	Neskak
	Benjaminak	5.392	7.436	72,51	Mutilak
	Kimuak	2.800	6.905	40,55	Neskak
	Kimuak	5.244	7.220	72,63	Mutilak



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Jarraipena haurren kategorian:

GIPUZKOA		
	Mutilak	Neskak
GUZTIRA	5.762	3.655
MATRIKULA	7.042	6.637
parte-hartzaileen % / ikasle kopurua	81,82%	55,07%

Espezialitaterik aukeratuenak:

- **Neskek:** atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, futbol 8, gimnastika, igeriketa eta boleibola.
- **Mutiek:** atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, futbola, igeriketa, esku-pilota, arraunketa eta errugbia.



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Hastapen-ikastaroetako parte-hartzea.

URPEKO JARDUERAK	861	IRAUPEN-ESKIA	90	IGERIKETA	16.748
XAKEA	586	GIMNASTIKA	2.137	PIRAGUISMOA	1.306
BADMINTONA	216	GOLFA	711	SURFA	1.987
BEISBOLA ETA SOFBOLA	2.174	HERRI KIROLAK	1.031	MAHAI-TENISA	2.017
BOLA-JOKOA ETA TOKA	615	HIPIKA	387	ARKU-TIROA	78
TXIRRINDULARITZA	1.472	BELAR-HOCKEYA	987	TRIATLOIA	809
KIROL EGOKITUA	104	MENDIZALETASUNA	3.969	BELA	494
ESGRIMA	832	IZOTZ GAINEN PATINAJEA	10.123	GUZTIRA	49.734

Gainera, UDA ikastaroetan 31.808 haurrek hartu dute parte (16.617 neskak ziren, eta 15.191 mutilak)



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Monitore-ikastaroak:

- **Gipuzkoako 616 pertsona azken 5 urteetan.**
- **GKP ikastaroak:**
 1. **22 arbitro-ikastaro.**
 2. **25 entrenatzaile-ikastaro.**
 3. **7 laguntzaile-ikastaro saskibaloian eta eskubaloian azken 7 urteetan.**



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

6. ESKOLA-KIROLA: DATUAK

Datu ekonomikoak

1. GFA	2.500.000 euro
2. Udalak	700.000 euro
3. Erabiltzaileak (kuotak)	700.000 euro

Gutzizko gastua edo inbertsioa, beraz, ia 4.000.000 euro da, agente guztien ekarpenak kontuan hartuta.



ESKOLA-KIROLA
25 URTE

7. ESKOLA-KIROLAREN 25 URTEEN ONDOREN, ESKER ONA MEREZI DUTE

- Seme-alaben parte-hartzea ahalbidetzen duten gurasoek.
- Kirola balio-eskola bihurtzen duten ikastetxeek.
- Gipuzkoako udalen lankidetzak eta lanak.
- Kirol-zaletasuna ereiten duten klubek eta federazioek.
- Kirolean beren ametsak eta ilusioak jartzen dituzten haurrek.

Mila esker guztioi!





ESKOLA-KIROLA
25 URTE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN
GIPUZKOA